



Accueil de la petite enfance en langue basque  
Lehen haurtzaroaren euskarazko harrera

préambule  
aitzinsolasa

le dispositif  
dispositiboa

modèle A  
A eredua

modèle B  
B eredua

modèle C  
C eredua

labellisation  
labelizatzea

partenaires  
partaideak

Parlée par environ un habitant sur quatre, la langue basque est vecteur de lien et de cohésion pour les habitants du territoire. Elle fait aujourd'hui l'objet d'un engouement généralisé particulièrement visible s'agissant des jeunes générations : plus d'une école sur deux propose un enseignement en langue basque, et 35% des parents ont fait le choix de la langue basque au primaire pour leur enfant.

Maillon incontournable dans le processus d'éveil de l'enfant, trait d'union entre la famille et l'école, le secteur de l'accueil collectif des jeunes enfants n'est pas en reste. Plusieurs établissements ont depuis longtemps fait le choix de proposer un accueil en langue basque, et la demande est croissante, tant de la part des porteurs de projet que des parents.

Dans l'objectif de structurer une offre d'accueil en langue basque, l'Office Public de la Langue Basque, la Caf de Bayonne, le Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques et la MSA Sud Aquitaine se sont réunis au sein du dispositif Leha. Faisant écho au monde de l'enfance, Leha rappelle les premières lettres de "Lehen haurtzaroaren euskarazko harrera", accueil de la petite enfance en langue basque.



Il s'agit d'un dispositif de labellisation des établissements d'accueil collectif des jeunes enfants proposant un accueil en langue basque. Les responsables des établissements existants ou en projet souhaitant proposer un accueil bilingue ou en langue basque, peuvent faire leur choix entre trois modèles d'accueil linguistique favorisant à la fois le bien-être de l'enfant et la transmission de la langue.

L'objectif est de développer une offre de service d'accueil collectif des jeunes enfants en langue basque, pour qu'en tout point du territoire, les parents puissent faire le choix du bilinguisme pour leur enfant, en cohérence avec leur projet éducatif, dans un esprit d'ouverture à tous.

Gaur egun, lau biztanleatariko batek euskara badaki. Lurraldeko jendeen artean harremana sortzen eta sustatzen duen hizkuntza da, eta anitzek egin du euskararen aldeko hautua, bereziki gazte belaunaldien artean. Lurraldeko eskolen erdiak baino gehiagok euskarazko irakaskuntza bat proposatzen du, eta gurasoen %35ak euskararen hautua egin du lehen mailan bere haurrarentzat.

Lehen haurtzaroaren sektorea ere euskararen aldeko mugimenduari lotu zaio. Haurraren ernatze prozesuan, kateko atal bat osatzen du haurtzaindegiak, familia eta eskolaren artean. Hala, badu jadanik zenbait urte haurtzaindegi batzuek euskarazko harrera bat proposatzen dutela, eta eskaera emendatuz doa, bai gurasoen partetik, bai eta ere proiektu eramaileen partetik.

Eskaera horri egin ahala ontsa erantzuteko, Euskararen Erakunde Publikoa, Baionako Cafa, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia eta Akitania Hegoaldeko MSA, Leha dispositiboaren baitan bildu dira. “Lehen haurtzaroaren euskarazko harrera”-ren lehen hizkiak hartzen ditu “Leha” izenak, aldi berean haurraren munduari nonbait oihartzun eginez.



Euskarazko harrera bat eskaintzen duten haurtzaindegien labelizatze dispositibo bat da. Dispositibo horren baitan, euskarazko harrera bat eskaini nahi luketen haurtzaindegiek, hiru eredu linguistikoen artean, bat hauta dezakete, euskararen transmisioa sustatzearekin batean haurraren ongi izatea segurtatuz.

Lehen haurtzaroaren euskarazko harrera zerbitzu eskaintza baten garatzea da Leha dispositiboaren helburua, lurraldeko edozein lekutan gurasoek elebitasunaren hautua egin ahal izan dezaten, beren hezkuntza proiektuari jarraikiz, irekidura izpiritu batean.

### • 3 modèles d'accueil linguistique :



Harrera elebiduna aukeran  
Accueil bilingue au choix

L'enfant est accueilli dans un environnement bilingue. Les parents choisissent le basque ou le français pour les échanges individuels.



Euskarazko harrera  
Accueil en basque

L'enfant est accueilli dans un environnement bascophone. Les échanges se déroulent en langue basque.



Harrera elebiduna  
Accueil bilingue

L'enfant est accueilli dans un environnement bilingue. La moitié des professionnels s'adressent à lui en basque, et l'autre moitié en français.

Chacun des modèles est défini dans un cahier des charges fixant les ressources nécessaires à sa bonne mise en œuvre.

Tous les opérateurs, publics ou privés, gestionnaires d'un établissement existant, ou porteurs d'un projet de création, peuvent procéder à une demande de labellisation.

### • 2 niveaux dans le parcours de labellisation :



Euskarazko harrera  
Accueil en basque

**Labellisé** : l'établissement répond à l'ensemble des critères fixés dans le cahier des charges du modèle choisi. Il est labellisé pour une durée de deux ans.



en démarche  
Euskarazko harrera  
Accueil en basque  
bidean

**En démarche de labellisation** : l'établissement ne répond pas à l'ensemble des critères du cahier des charges du modèle choisi. Il est déclaré en démarche de labellisation. Il bénéficie de l'accompagnement de l'Office Public de la Langue Basque dans le but d'accéder à une labellisation définitive.

### • Un Comité technique des labels :

Composé de représentants de la **Caf de Bayonne**, du **Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques**, de la **MSA Sud Aquitaine** et de l'**Office Public de la Langue Basque**, il est chargé de l'examen des demandes, de l'attribution des labels et du suivi des établissements labellisés.

• **3 eredu linguistiko :**



Harrera elebiduna aukeran  
Accueil bilingue au choix

Haurra inguramen elebidun batean ibilki da, langileak euskaraz ala frantsesez ari zaizkio, gurasoen hautuaren arabera.



Euskarazko harrera  
Accueil en basque

Inguramen euskaldunean ibilki da haurra, eta harremanak osoki euskaraz egiten dira.



Harrera elebiduna  
Accueil bilingue

Inguramen elebidunean ibilki da haurra, eta langileen erdia ari zaio euskaraz eta beste erdia frantsesez.

Eredu bakoitza kargu kaiera batean definitua da. Bertan zerrendatzen dira eredu linguistikoaren ongi obratzeko beharrezkoak diren baliabideak.

Izan sorkuntza proiektu baten eramaile ala jadanik dagoen haurtzaindegi baten kudeatzaile, eragile publiko eta pribatuak egin dezakete labelizatze eskaera bat.

• **2 maila labelizatze ibilbidean :**



Euskarazko harrera  
Accueil en basque

**Labelizatua :** hautatu ereduaren kargu kaierako arau guztiak errespetatzen ditu haurtzaindegiak. Bi urterentzat labelizatua da.



Euskarazko harrera  
Accueil en basque

**Labelizatze bidean izendatua :** hautatu ereduko kargu kaieraren arau guztiak ez ditu errespetatzen haurtzaindegiak. Labelizatze bidean izendatua da. Eskas dituen baliabideak eskuratzen laguntzen du EEPk, betiereko labela eskura dezan.

• **Labelizatze batzorde tekniko bat :**

**Baionako Cafa, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia, Akitania Hegoaldeko MSA eta Euskararen Erakunde Publikoko** ordezkariak osatzen dute Labelizatze batzorde teknikoa. Eskaeren azterketa, labelen ematea, eta haurtzaindegi labelizatu jarraipena dira honen egitekoak.



## 1. Accueil linguistique

- Tous les enfants évoluent dans un environnement bilingue.
- Les échanges individuels se déroulent en basque ou en français selon le choix des parents. Lors des activités en groupe les consignes collectives sont données dans chacune des deux langues.

## 2. Taux d'encadrement

Dans le respect des taux d'encadrement et qualifications prévues par le décret du 1er août 2000, l'arrêté du 26 décembre 2000 et le décret du 7 juin 2010 : 100% du personnel devra être bilingue. Il est souhaitable que la direction soit bilingue.

## 3. Matériel d'éveil

La structure d'accueil doit se munir du matériel nécessaire à la bonne application du projet linguistique : livres, CD, jeux...

## 4. Animations

Dans l'organisation d'activités d'animations ponctuelles ou régulières (spectacles, conteurs, partenariats avec d'autres structures...) les professionnels veilleront au maintien d'un équilibre entre le basque et le français.

## 5. Affichage, signalétique et documents communiqués aux parents

- La signalétique et l'affichage reflèteront la dimension plurilingue de la structure, et seront mis en place dans les deux langues.
- Les professionnels de la structure veilleront à la présence du bilinguisme dans les différents documents remis aux familles.
- Le projet d'établissement, le règlement intérieur et le dossier d'inscription seront bilingues.

## 6. Information aux familles

- Toutes les familles sont informées de la possibilité de choisir le basque ou le français dans les relations individuelles.
- La langue choisie par la famille apparaît explicitement dans le dossier d'inscription.
- Tout au long de la présence de l'enfant au sein de la structure d'accueil, les professionnels veilleront à communiquer avec les familles concernées en étant attentifs à leurs réactions et interrogations éventuelles, en les invitant à partager, par souci de cohérence, la mise en œuvre du projet linguistique de la structure (y porter intérêt, le valoriser, le prolonger lorsque cela est possible au sein de la structure familiale...).



## 1. Harrera linguistikoa

Haurra inguramen elebidun batean ibilki da, langileak euskaraz ala frantsesez ari zaizkio, gurasoen hautuaren arabera. Taldekako aktibitateetan, manuak bi hizkuntzetan ematen dira.

## 2. Langilegoaren euskara gaitasunak

2000ko agorrilaren 1eko dekretuak, 2000ko abenduaren 26eko arauak, eta 2010eko ekainaren 7ko arauak finkatzen dituzten irizpideak errespetatuz beti ere: langilegoaren %100ak elebiduna izan behar du. Zuzendaria elebiduna izan dadin aholkatzen da.

## 3 Ernatze materiala

Eredu linguistikoaren gauzatzeko gisako materiala eskuratu beharko du egiturak.

## 4. Animazioak

Euskara eta frantsesaren arteko oreka bat segurtatuko da animazioen antolatzeko tenorean (agerraldi, kontalari, beste egiturekilako lankidetzetan...).

## 5. Afixaketa, seinaleta, eta gurasoei zuzendu dokumentuak

- Afixaketak eta seinaletzak egituraren eleaniztasuna islatu beharko dute, eta ondorioz bi hizkuntzetan eginen dira beti.
- Familiei banatu dokumentuetan elebitasuna zainduko dute profesionalak.
- Egitura proiektua, barne araudia, eta izen emate txostena elebidunak izanen dira.

## 6. Familienganako informazioa

- Familia guztiei jakinarazten zaie frantsesa ala euskara hauta dezaketela langileek beren haurrarekin ukanen duten harremanarentzat.
- Familiak hautatu duen hizkuntza haurraren txostenean argiki agertzen da.
- Profesionalak egituran dauden haurren familiekilako komunikazioan arreta berezia jarriko dute, beren ihardukitze edota galderei erantzuteko, egiturak daraman eredu linguistikoa haiekin partekatu ahal izateko, haurrari begira koherentzia baten bermatzeko gisan (proiektua azaldu eta balorizatuko dute, etxean ere gauza dadin posible delarik...).



## 1. Accueil linguistique

- Au sein des groupes d'enfants constitués, les échanges collectifs et les échanges individuels se font en basque.
- Durant la période d'adaptation, si la langue maternelle de l'enfant n'est pas le basque, les échanges individuels pourront se faire dans sa langue maternelle.

## 2. Taux d'encadrement

Dans le respect des taux d'encadrement et qualifications prévues par le décret du 1er août 2000, l'arrêté du 26 décembre 2000 et le décret du 7 juin 2010 : 100% du personnel d'encadrement devra être bilingue. Il est souhaitable que la direction soit bilingue.

## 3. Matériel d'éveil

La structure d'accueil doit se munir du matériel nécessaire à la bonne application du projet linguistique : livres, CD, jeux...

## 4. Animation

Les animations ponctuelles ou régulières (spectacles, conteurs, partenariats avec d'autres structures...) se dérouleront en langue basque.

## 5. Affichage, signalétique et documents communiqués aux parents

- Afin notamment de faciliter la communication en direction de l'ensemble des familles, la signalétique et l'affichage seront bilingues.
- Les professionnels de la structure veilleront à la présence du bilinguisme dans les différents documents remis aux familles.
- Le projet d'établissement, le règlement intérieur et le dossier d'inscription seront bilingues.

## 6. Information aux familles

- Toutes les familles sont informées que l'enfant évoluera toute la journée dans un environnement bascophone.
- Tout au long de la présence de l'enfant au sein de la structure d'accueil, les professionnels veilleront à communiquer avec les familles concernées en étant attentifs à leurs réactions et interrogations éventuelles, en les invitant à partager, par souci de cohérence, la mise en œuvre du projet linguistique de la structure (y porter intérêt, le valoriser, le prolonger lorsque cela est possible au sein de la structure familiale...).





## 1. Harrera linguistikoa

Haurra inguramen euskaldunean ibilki da, buruz bururako harremanak eta taldeko harremanak euskaraz egiten dira. Egokitze fasean, haurraren ama hizkuntza euskara ez bada, harekilako trukaketak haren ama hizkuntzan egiten ahalko dira.

## 2. Langilegoaren euskara gaitasunak

2000ko agorrilaren 1eko dekretuak, 2000ko abenduaren 26eko arauak, eta 2010eko ekainaren 7ko arauak finkatzen dituzten irizpideak errespetatuz beti ere : langilegoaren %100ak elebiduna izan behar du. Zuzendaria elebiduna izan dadin aholkatzen da.

## 3. Ernatze materiala

Eredu linguistikoa gauzatzeko gisako materiala eskuratu beharko du egiturak.

## 4. Animazioak

Behin behineko animazioak eta animazio erregularrak (agerraldi, kontalari, beste egiturekilako lankidetzak...) euskaraz egiten dira.

## 5. Afixaketa, seinaleta, eta gurasoei zuzendu dokumentuak

- Familienganako komunikazioaren errazteko gisan afixaketak eta seinaletzak elebidunak izanen dira.
- Familiei banatu dokumentuetan elebitasunaren presentzia zainduko dute profesionalak.
- Egitura proiektua, barne araudia, eta izen emate txostena elebidunak izanen dira.

## 6. Familienganako informazioa

- Familia guztiei jakinarazten zaie haurra inguramen euskaldunean ibiliko dela egun osoan.
- Profesionalak egituran dauden haurren familiekilako komunikazioan arreta berezia jarriko dute, beren ihardukitze edota galderei erantzuteko, egiturak daraman eredu linguistikoa haiekin partekatu ahal izateko, haurrari begira koherentzia baten bermatzeko gisan (proiektua azaldu eta balorizatuko dute, etxean ere gauza dadin posible delarik...).



## 1. Accueil linguistique

- Tous les enfants évoluent dans un environnement bilingue, la moitié des professionnels de la structure s'exprimant toute la journée en basque et l'autre moitié en français.
- Chaque groupe d'enfants est encadré par au moins un « référent » francophone et un « référent » bascophone.
- Les échanges individuels se font dans les deux langues avec tous les enfants, selon le « référent » qui intervient.
- Durant les premiers temps de l'accueil, si l'on constate des problèmes de compréhension chez l'enfant, le « référent » s'exprimant dans sa langue maternelle procède à la traduction des échanges individuels, le principe « un référent/une langue » étant toujours respecté.

## 2. Taux d'encadrement

Dans le respect des taux d'encadrement et qualifications prévues par le décret du 1er août 2000, l'arrêté du 26 décembre 2000 et le décret du 7 juin 2010 : tout au long de la journée, 50% du personnel d'encadrement devra être bascophone. Il est souhaitable que la direction soit bilingue. Pour ce faire ce ratio de 50% de bascophones devra être atteint pour chacune des trois catégories de personnels suivantes :

- les personnels titulaires de diplômes de puériculteur(-trice), d'auxiliaire de puériculture, d'éducateur(-trice) de jeunes enfants ou d'infirmier(e) ;
- les personnels titulaires des diplômes de CAP Petite Enfance ou équivalents ;
- les personnels non titulaires de diplômes spécialisés.

## 3. Matériel d'éveil

La structure d'accueil doit se munir du matériel nécessaire à la bonne application du projet linguistique : livres, CD, jeux...

## 4. Animations

Dans l'organisation d'activités d'animations ponctuelles ou régulières (spectacles, conteurs, partenariats avec d'autres structures...), les professionnels veilleront au maintien d'un équilibre entre le basque et le français.

## 5. Affichage, signalétique et documents communiqués aux parents

- La signalétique et l'affichage refléteront la dimension plurilingue de la structure, et seront mis en place dans les deux langues.
- Les professionnels de la structure veilleront à la présence du bilinguisme dans les différents documents remis aux familles.
- Le projet d'établissement, le règlement intérieur et le dossier d'inscription seront bilingues.

## 6. Information aux familles

- Toutes les familles sont informées que leur enfant évoluera toute la journée dans un environnement bilingue.
- Tout au long de la présence de l'enfant au sein de la structure d'accueil, les professionnels veilleront à communiquer avec les familles concernées en étant attentifs à leurs réactions et interrogations éventuelles, en les invitant à partager, par souci de cohérence, la mise en œuvre du projet linguistique de la structure (y porter intérêt, le valoriser, le prolonger lorsque cela est possible au sein de la structure familiale...).



## 1. Harrera linguistikoa

- Haurra inguramen elebidunean ibilki da, langileen erdia euskaraz ari baita eta beste erdia frantsesez, aldi berean eta leku berean.
- Haur talde bakoitza gutienez « zurkaitz frantses » batek eta « zurkaitz euskaldun » batek kudeatzen dute.
- Harremanak bi hizkuntzetan egiten dira, mintzo den zurkaitzaren arabera.
- Harreraren hastapenetan, haurrak ulermen arazoak baldin baditu, haren ama hizkuntzan ari den zurkaitzak besteak errana itzultzen dio, “zurkaitz bat/hizkuntza bat” printzipioa bermatzen segituz.

## 2. Langilegoaren euskara gaitasunak

2000ko agorriaren 1eko dekretuak, 2000ko abenduaren 26eko arauak, eta 2010eko ekainaren 7ko arauak finkatzen dituzten irizpideak errespetatuz beti ere : haurren harreran ari den langilegoaren %50a elebiduna izan behar da eguneko momentu orotan, eta aholkatzen da zuzendaritza ere elebiduna izan dadin. Hala, honako langileria mota ezberdinen artean, %50a elebiduna izan beharko da :

- Puerikultura tituludun, Puerikultura laguntzaile tituludun, Erizain tituludun, Haur gazteen hezitzaile tituludunen artean ;
- Lehen haurtzaroko CAPdun edo maila bereko tituludunen artean ;
- Titulu bereziturik ez dutenen artean.

## 3. Ernatze materiala

Eredu linguistikoaren gauzatzeko gisako materiala eskuratu beharko du egiturak.

## 4. Animazioak

Euskara eta frantsesaren arteko oreka bat segurtatuko da animazioen antolatzeko tenorean (agerraldi, kontalari, beste egiturekilako lankidetzetan...).

## 5. Afixaketa, seinaleta, eta gurasoei zuzendu dokumentuak

- Afixaketak eta seinaletzak egituraren eleaniztasuna islatu beharko dute, eta ondorioz bi hizkuntzetan egiten dira beti.
- Familiei banatu dokumentuetan elebitasunaren presentzia zainduko dute profesionalak.
- Egitura proiektua, barne araudia, eta izen emate txostena elebidunak izanen dira.

## 6. Familienganako informazioa

- Familia guztiei jakinarazten zaie beren haurra inguramen elebidun batean ibiliko dela egun guztia.
- Profesionalak egituran dauden haurren familiekilako komunikazioan arreta berezia jarriko dute, beren ihardukitze edota galderei erantzuteko, egiturak daraman eredu linguistikoa haiekin partekatu ahal izateko, haurrari begira koherentzia baten bermatzeko gisan (proiektua azaldu eta balorizatuko dute, etxean ere gauza dadin posible delarik...).

## Pour être labellisé...

Les opérateurs publics ou privés, gestionnaires d'un établissement existant, ou porteurs d'un projet de création, peuvent procéder à une demande de labellisation.

CHOIX DU  
MODELE

**1.** Ils choisissent le modèle en tenant compte de la demande des parents et de l'offre existante sur le territoire.



DEMANDE DE  
LABELLISATION

**2.** Ils procèdent à la demande de labellisation pour le modèle choisi.  
a. Ils retirent et renvoient le dossier de demande de labellisation à l'OPLB.  
b. Ils procèdent avec les services de l'OPLB au diagnostic des ressources en langue basque dont ils disposent, au regard des pré-requis du cahier des charges.

Contact :  
Office Public de la Langue Basque  
2. allée des Platanes  
64100 Bayonne

05 59 31 18 34  
eep-oplb@mintzaira.fr



DECISION DU COMITE DES LABELS

**3.** Le Comité technique des labels examine le dossier de demande de labellisation et le diagnostic des ressources en langue basque et décide :

**a. de labelliser l'établissement.**

L'établissement respecte l'ensemble des clauses du cahier des charges et est labellisé. Le label a une durée de validité de deux ans. Au terme de ce délai, l'OPLB procède à un nouveau diagnostic des ressources en langue basque, et le Comité décide soit de reconduire la labellisation, soit de retirer provisoirement le label et de déclarer l'établissement en cours de labellisation, soit de retirer le label définitivement.

**b. de déclarer l'établissement en démarche de labellisation.**

Ce label est attribué lorsque l'établissement ne respecte pas en l'état les pré-requis du cahier des charges, et sous réserve de l'adoption d'un plan d'accompagnement par le gestionnaire. Le plan d'accompagnement est défini par l'OPLB en concertation avec le gestionnaire. Il liste les opérations nécessaires à la labellisation (formation linguistique, traduction des documents et signalétique...), leurs coûts et le calendrier de mise en œuvre.

**c. de ne pas attribuer le label.**



MODALITES DE COMMUNICATION

**4. Les modalités de communication aux familles par le gestionnaire après labellisation :**

- L'opérateur devra faire mention du modèle linguistique proposé dans le projet d'établissement, dans la partie relative au projet éducatif et dans la partie relative aux compétences mobilisées par l'équipe.
- Il doit afficher le logo correspondant au modèle proposé et à son niveau de labellisation.



# Labelizatua izateko...

Izan sorkuntza proiektu baten eramaile ala jadanik dagoen hartzaindegi baten kudeatzaile, eragile publiko eta pribatuek egin dezakete labelizatze eskaera bat.

EREDUAREN  
HAUTUA

**1.** Ereduaren hautua egiten dute, gurasoen eskaera, eta lurraldeko eskaintza kontutan harturik.

LABELIZATZE  
ESKAERA

**2.** Labelizatze eskaera egiten dute :  
a. Eskabide txostena EEPri galdegiten diote, eta behar bezala beteta itzultzen diote.  
b. Eragileak, dauzkan euskarazko baliabideen diagnostiko bat egiten du EEPrekin, kargu kaieran galdeginak oinarri harturik.

Harremanak :  
Euskararen Erakunde Publikoa  
Platanondoan etorbidea,2  
64100 Baiona

05 59 31 18 34  
eep-oplb@mintzaira.fr

LABELIZATZE BATZORDEAREN  
ERABAKIA

**3.** Labelizatze eskaera eta euskarazko baliabideen diagnostikoa aztertzen ditu Labelizatze batzorde teknikoak eta erabakitzen du :

**a. hartzaindegiaren labelizatzea.**

Kargu kaierako arauak errespetatuak dira, eta hartzaindegia labelizatua da. Labela bi urterentzat ematen zaio. Epe hori bururatzean, EEPk euskarazko baliabideen diagnostiko berri bat egiten du, eta Labelizatze batzordeak erabakitzen du, labelizatzearen luzatzea, edo aldi baterako labelaren kentzea eta egitura labelizatze bidean izendatzea, edo osoki labelaren kentzea.

**b. hartzaindegia labelizatze desmartxan izendatzea.**

Label hori ematen da, egiturak ez dituelarik kargu kaierako arau guztiak errespetatzen, eta baldin eta kudeatzaileak laguntza plangintzaren obratzea onartzen badu. EEPrekin elkarraditzean definitzen da laguntza plangintza. Labelizatua izateko gisan gauzatu beharreko ekintzak, beren gastu eta egutegiarekin zerrendatzen dira bertan.

**c. hartzaindegiaren ez da labelizatzen.**

KOMUNIKAZIO IRIZPIDEAK

**4. Kudeatzaileak familiei begira errespetatu behar dituen komunikazio irizpideak :**

- Egitura proiektuan, eredu linguistikoari buruzko aipamena sartu behar du kudeatzaileak, hezkuntza proiektuari buruzko partean, eta taldearen gaitasunei buruzko partean.
- Hautatu ereduari eta labelizatze mailari doakien logoa afixatu behar du hartzaindegiko sarreran.



labelisation  
labelizatzea



- **Le Comité technique des labels :**

Composé de représentants de la **Caf de Bayonne**, du **Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques**, de la **MSA Sud Aquitaine** et de l'**Office Public de la Langue Basque**, il s'agit d'une structure de concertation permanente qui a pour objet de structurer une offre d'accueil collectif des jeunes enfants en langue basque, et ne traite que de la dimension linguistique de l'accueil. Il n'a par conséquent pas vocation à se substituer aux procédures et dispositifs existant par ailleurs.

Il est chargé de l'examen des dossiers de demande de labellisation, de l'attribution des labels et du suivi des établissements labellisés.

- **L'Office Public de la Langue Basque :**

L'**Office** est chargé par le **Comité technique des labels** d'accompagner les opérateurs à toutes les étapes de la labellisation : phase d'information, choix du modèle, demande de labellisation... A ce titre, pour les projets de création, il intervient en **Comité de pilotage**.

En concertation avec l'opérateur, il réalise le **diagnostic des ressources en langue basque** qui est présenté avec les dossiers de demande de labellisation au Comité technique des labels.

Lorsque celui-ci est déclaré en démarche de labellisation, il travaille avec l'opérateur à la **définition du plan d'accompagnement** listant les opérations (formation linguistique, traduction des documents et signalétique...), leurs coûts et le calendrier de mise en œuvre, pour qu'à terme l'établissement puisse obtenir le label définitif. Il peut également soutenir financièrement l'opérateur dans la mise en œuvre de ces opérations.

- **La Caf de Bayonne :**

Dans le cadre de sa participation au dispositif de labellisation, compte tenu d'un contexte global d'une offre de services à ce jour inférieure aux besoins recensés sur le territoire, dans le souci d'appliquer le principe de non discrimination et dans un esprit d'ouverture à tous, la Caf de Bayonne fixe des conditions particulières au financement des établissements proposant un accueil de types B et C.

La **Caf de Bayonne accompagnera un projet de modèle B** sur un secteur à condition que l'offre existante dépasse le seuil de 10%. Ce seuil doit être apprécié sur le périmètre de la collectivité territoriale ayant la compétence petite enfance, commune ou communauté de communes. C'est sur ce même périmètre que seront gérées les places pour une famille ne souhaitant pas d'accueil en langue basque pour son enfant, dans le cadre d'une convention tripartite signée entre la collectivité locale, l'établissement d'accueil et la Caf.

A titre dérogatoire, si la Communauté de Communes n'a pas la compétence petite enfance, une convention peut être passée entre plusieurs communes acceptant que s'appliquent entre elles les deux critères énoncés ci-dessus.

**Pour le modèle C**, dans le cas où un parent ne souhaiterait pas que son enfant soit accueilli en bilingue, le gestionnaire doit s'assurer que les échanges avec le référent francophone soient privilégiés, et que des activités en français soient proposées, sous réserve des possibilités de respecter les taux d'encadrement fixés réglementairement.



- **Labelizatze batzorde teknikoak :**

**Baionako Cafak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia, Akitania Hegoaldeko MSA eta Euskararen Erakunde Publikoko** ordezkariak osatzen dute Labelizatze batzorde teknikoak. Elkarraditze batzorde finko bat da, eta haren egitekoa, lehen haurtzaroaren harrera kolektiboan euskarazko harrera zerbitzu eskaintza baten egituratzea da. Zentzu horretan, harreraren osagai linguistikoa baizik ez du jorratzen, eta gainerateko dispositibo eta prozedurak ez ditu ordezkatzeko. Labelizatze eskabide txostenak aztertzen ditu, labelak ematen, eta egitura labelizatuen jarraipena segurtatzen du.

- **Euskararen Erakunde Publikoa :**

Labelizatze prozeduraren urrats ezberdinetan, eragilearen aholkatzeko misioa eman dio **Labelizatze batzorde teknikoak EEPri** : informazio emate fasean, ereduaren hautuan, labelizatze eskaerari doakionez... Misio hori duela eta, gidaritza batzordeetan parte hartzen du, proiektu berrien kasuan.

Eragilearekin elkarraditzean, **euskarazko baliabideen diagnostikoa** egiten du. Dokumentu hori, labelizatze eskaera txostenarekin batean aurkezten zaio Labelizatze batzorde teknikoari.

Egitura labelizatze bidean izendatua delarik, EEPk, eragilearekin lan egiten du, **laguntza plangintza baten definitzeko**. Dokumentu horretan zehazten dira egiturak obratu behar dituen ekintzak (hizkuntza formakuntza, dokumentu eta seinaletzaren itzulpena...), beren kostuak, eta beren gauzatzeko egutegi bat. Ekintza horiek gauzatzearen medioz, betiereko labelaren eskuratzeko helburua du haurtzaindegia. EEPk haurtzaindegia, diruz laguntzeko, ekintza horien obratzeko.

- **Baionako Cafak :**

Ikusirik, gaur egun, lurraldeko harrera eskaintzak beharrei ez diela erantzuten, eta diskriminatze ezaren printzipioaren aplikatzeko gisan, Baionako Cafak, B eta C ereduko haurtzaindegien finantzatzeko irizpide berezi batzuk finkatu ditu, Labelizatze dispositiboko kide dela eta.

**Baionako Cafak, B ereduko proiektu bat lagunduko du** sektore batean, baldin eta eremu horretako eskaintzak %10a gairatzen badu. Tasa hori kalkulatu da, lehen haurtzaroaren eskuduntza duen tokiko agintearen esku-hartze lurraldea hartuta. Eremu horretan dira ere kudeatuko, euskarazko harrerarik nahi ez luketen familien haurren lekuak. Horretarako, tokiko aginte eskuduna, haurtzaindegia eta Cafaren arteko hitzarmen bat izenpetuko da.

Salbuespen gisa, herri elkargoak ez badu lehen haurtzaroko eskuduntza, hitzarmena herri ezberdinen artean izenpetuko da. Dokumentu horretan, herriek adosten dute beren artean kudea daitezkeen gorago aipatu bi irizpideak.

**C ereduarentzat**, guraso batek ez balu nahi bere haurrak elebidunezko harrera ukan dezan, frantsesezko erreferentearekilako harremana lehenetsiko dela segurtatu behar du zuzendariak, eta frantsesezko ordezkari aktibitateak proposatzen ditu baldin eta arauak finkatu gutienezko haur kopuruarentzat egiten bada eskaera mota hori.

## Contact / Harremanak :

Office Public de la Langue Basque – Euskararen Erakunde Publikoa  
2. allée des Platanes - Platanondoan etorbidea,2  
64100 Bayonne - Baiona  
05 59 31 18 34  
eep-oplb@mintzaira.fr



Accueil de la petite enfance en langue basque  
Lehen haurtzaroaren euskarazko harrera

